

**EKONOMIAREN ETA ARAUEN KONTROLERAKO TXOSTENA, KONTROL EKONOMIKOKO BULEGOAK EMANDAKOA, EUSKAL SEKTORE PUBLIKOAREN ANTOLAMENDU ETA FUNTZIONAMENDUAREN LEGE-PROIEKTUARI BURUZKOA.****Tramitagune DNCG_LEY_64400/2015_02**

Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko ekainaren 30eko 14/1994 Legeak arautzen du ekonomia- eta arau-kontrola, III. tituluko IV. kapitulan. Nahitaezkoa da, eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eginiko txostenaren bidez gauzatzen da.

Kontrol horretan sartzen da, ekonomiari eta antolamenduari dagokienez, Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioiko organo ororen eraketa zein ezabaketa fiskalizatzea, bai eta organo horien aldaketak eta berregituraketak fiskalizatzea ere.

Honako txosten hau egin da, xedapen hauek kontuan hartuta: aipatu den araua, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioaren barneko ekonomia-kontrola eta kontabilitatea garatzen dituen urriaren 31ko 464/1995 Dekretuko III. kapituluaren 3. sekzioa, eta Ogasun eta Finantza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko 2013ko apirilaren 9ko 192/2013 Dekretuaren 4. artikulua.

TXOSTENA**I. XEDEA**

Txosten hau goiburuan aipatutako lege-proiektuari buruzkoa da. Lege-proiektu horren 1. artikuluan ezarritakoaren arabera, xede bikoitza du proiektuak:

a) Herri administrazioaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoa osatzen duten erakunde guztien antolamendua eta funtzionamendua arautzea. Hauek dira erakundeak: Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra, Erakunde Administrazioa eta berori osatzen duten erakunde instrumentalak.

b) Euskal Sektore Publikoaren osagaiak zehaztea eta sektore hori neurritz egokitu eta alda dadin jarraitu beharreko arau eta printzipio komunak ezartzea, herritarrekiko harremana duen zerbitzu publikoa den heinean. Proiektuaren I. tituluko II. kapituluak Euskal Sektore Publikoa arautzen du. Azpimarratzekoak dira bertan aipatzen diren esparrua eta jarduketa-printzipioak eta euskal sektore publikoa arrazionalizatu eta neurritz egokitze Erakunde arteko Batzordea eratzea. Sektore horren osaera ezartzeko arauari jarraituko zaie.

Hauek dira, beraz, Euskal Sektore Publikoa (4. artikulua) osatzen duten erakundeak: euskal herri administrazio guztietako sektore publikoak, hau da, Administrazio Orokorra, Lurralde Historikoetako Foru Administrazioak eta Toki Administrazioak (beren Erakunde Administrazioarekin eta beren menpe dauden gainerako erakunde instrumentalekin batera); bi legeen ondorioetarako, honako hauek ere Euskal Sektore Publikoaren barruan sartzen dira: Eusko Legebiltzarra, Batzar Nagusiak, Toki Korporazioak, Euskal Herriko Unibertsitatea, maila instituzional guztietako gobernuak eta erakunde horietan guztietan parte hartu edo horiei aholku ematen dieten organoak, beren egitekoak independentziaz betetzen dituztenak.

Haatik, Ogasun eta Finantza Sailaren txostenak ezarri bezala, desegokia izan daiteke identifikazio konplexu eta guztiz zehaztu gabeko beste hainbat erakunde euskal sektore publikoan integratzea, euskal sektore publiko guztiz zehatza diseinatuko bada.

II.- AURREKARIAK ETA IGORRITAKO AGIRIAK

Lehenik eta behin, esan beharra dago berehalako aurrekaria Euskadiko Herri Administrazioaren lege-proiektua dela, Gobernu Kontseiluak 2014ko irailaren 16ko bilkuran onartu zuena. Legegintza-ekinbide hori ez zen, ordea, gauzatu; izan ere, Gobernuak baztertu egin zuen 2015eko apirilaren 23an.

Idatzitako testuak, beraz, Euskadiko Herri Administrazioaren lege-proiektuaren edukia du abiapuntu. Hala berretsi du prozedura hastea helburu duen Agindua: *"aurreproiektuak berehalako aurrekaria du, Euskadiko herri administrazioaren huts egindako lege-aurreproiektua, alegia; nolanahi ere, egungo aurreproiektua gardentasuna eta gobernatze ona lantzen dituen aurreproiektuarekin batera izapidetu ahalko da, berori ere aipatutako aurreproiektutik eratorria baita".*

Halaber kontuan hartu behar da 13/2015 Mozioa, herri administrazioaren lege berria planteatzeko eman beharreko urratsei buruzkoa. Mozio hori 2015eko ekainaren 18ko Eusko Legebiltzarreko bilkuran onartu zen, testu honen bidez:

"Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio:

- 1. Euskal sektore publikoaren antolamenduari eta funtzionamenduari buruzko lege-proiektua Ganberara igortzea. Sektore hori Euskadiko herri administrazioekin lotutako sektore publikoen multzoak (komunak, foru-mailakoak eta tokikoak) osatzen du. Lege-proiektuak euskal sektore publiko eraginkorra osatzea izango du helburu, erakundeen arrazionalizazioa lortzeko.*
- 2. Ganberara igortzea euskal sektore publikoaren gardentasunean, herritarren parte-hartzean eta gobernu onean oinarritutako lege-proiektua. Proiektu horrek baliabide publikoen kudeaketan erabateko gardentasunaren eta herritarren parte-hartze aktiboaren alde egin beharko du eta bere printzipio orokorrez gain, Euskadiko herri administrazioekiko harremanetan herritarrek dituzten oinarritzko eskubide eta betebeharrak jaso beharko ditu.*

3. Bi lege horien garrantzia kontuan hartuta, horiek egiterakoan parlamentuko taldeek Gobernuak baztertutako Euskadiko Herri Administrazioaren lege-proiektuari aurkeztutako zuzenketak aintzatestea, ahalik eta adostasun handiena lortze aldera, modu horretan, horien izapidea ahalik eta azkarren egiteko.

4. Hurrengo saioen txanda hasi aurretik bi proiektuak Ganberara igortzea, izapidearekin lehenbailehen haste aldera.”

Aurrekariei buruzko atala bukatzeko, Euskadiko Herri Administrazioaren aurreko proiektuaren aurrekari zirenetara jo behar dugu. Horietako hainbat izapidetutako proiektuarekin lotuta daude:

- X legegintzaldiko (2012-2016) lege-egutegia, Gobernu Kontseiluak 2013ko ekainaren 25ean onartu zuena; bertan, hasierako lege-proiektua, hau da, orain zatitu dena, aipatzen da.

- 7/1981 Legea, ekainaren 30ekoa, Gobernu Legeari buruzkoa; proiektuak, beraz, edukiaren arabera izan behar du, ekimena sustatzen duen instantziak argudiatzen duenez.

- Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren III. titulua; egun, titulu hori indargabetzea proposatu da. Zentzu horretan, aipatu beharra dago Titulu hori nabarmen aldatu zela Euskadiko Ondareari buruzko Legearen testu bateginaren Seigarren Azken Xedapenaren bidez. Testu hori azaroaren 6ko 2/2007 Legegintzako Dekretuaren bidez onartu zen.

Halaber aipagarria da martxoaren 1eko 6/2012 Legea, besteak beste Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina aldatu zuena, gaur egun indargabetu nahi den Xedapen gehigarri (bakarra) sartuz.

- *EAEko sektore publikoa neurritz egokitzeko eta arrazionalizatzeko estrategia*, Gobernu Kontseiluak 2013ko uztailaren 30ean onartu zuena, lege-proiektu honetan erabili diren printzipio, irizpide eta planteamenduak ezarri zituen. Era berean, Eusko Jaurlaritzaren Berrikuntza Publikoaren Plana 2014-2016 aipatu behar dugu; plan hori Gobernu Kontseiluak 2014ko ekainaren 17an onartu zuen eta lege-proiektu honen aurrekaritzat har daiteke.

- Euskadiko Herri Administrazioaren funtzionamenduari dagokionez, lehenik eta behin ekainaren 22ko 11/2007 Legea aipatu behar dugu, Herritarrek Zerbitzu Publikoetan Sarbide Elektronikoa izateari buruzkoa; bestalde, Administrazio Elektronikoiari buruzko otsailaren 21eko 21/2012 Dekretua ere aipagarria da.

Aurreko guztia kontuan izanda, espedientean jarduten duen dokumentazioa aztertu ondoren, esan daiteke ekimena sustatu duen Sailak Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren 8/2003 Legean ezarritakoa aintzat hartu duela. Halaber, zehaztu behar da aipatutako agiriak bat datozela funtsean Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioaren barneko ekonomia-kontrola eta kontabilitatea

garatzen dituen urriaren 31ko 464/1995 Dekretuaren 42. eta 43. artikuluetako aurreikuspenekin, eta agiri horiek informazio nahikoa biltzen dutela bulego honek ekonomia- eta araudi-kontrola egin dezan, ekonomia eta antolamendu modalitatea barne, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko ekainaren 30eko 14/1994 Legeko 25., 26. eta 27. artikuluen arabera.

Halaber, espedientearekin batera Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 10.2. artikuluan eskatutako edukiaren memoria laburra aurkezteko beharra hauteman da. Ondorio horietarako, zehaztu behar da Herri Administrazio eta Justizia Sailak espedientearekin batera ordura arte egindako alegazioak aztertzen dituen memoria gehigarria aurkeztu duela 2015eko uztailaren 29an.

Atal hau amaitzeko, esan behar dugu ezen, ekonomia- eta araudi-kontrol hori egin ondoren, derrigorrezkoa dela Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena. Gogoratu behar da ezen, aipatu irizpenaren ondorioz aldaketak egiten badira aurreproiektuan, aldaketok bulego honi jakinarazi beharko zaizkiola Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko ekainaren 30eko 14/1994 Legearen 27.1 artikuluan xedatuaren arabera, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari buruzko azaroaren 24ko 9/2004 legearen Azken Xedapenetan Lehenengoak aurreko lege horri emandako idazkera berria kontuan hartuta.

III AZTERKETA

Lege-proiektuak alderdi ugaritan eragiten du; horietako batzuk osorik edo partzialki araututa daude dagoeneko indarrean dauden legeen bitartez. Haatik, interpretazio bidez adostuko da egun indarrean dagoen ordenamenduak eta aurreikuspen berriek bat egitea; izan ere, proiektuak bere xedapen gehigarriak, xedapen iragankorra eta indargabetzailea eta azken xedapenen bidez beste arau multzoetan oso eragin zuzen eskasa du atal multzoak aurkeztzen duen eduki osoarekin alderatuz.

Beraz, lurralde historikoetako foru-organoetan eta Autonomia Erkidegoko toki-erakundeetan legea aplikatzeari buruzko Xedapen Gehigarriaz gain, oso indargabetze eta aldaketa gutxi planteatzen dira eta horiek guztiak, gainera, ogasunarekin lotura zuzena edo zeharkakoa dute:

- Indargabetu egiten dira Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategineko III. titulua, Erakunde Antolamenduari buruzkoa, eta xedapen gehigarri bakarra, EAEko Sektore Publikoak partaidetutako erakundeei buruzkoa.

- Aldatu egiten da Euskadiko aurrekontu-araubidearen arloan indarrean diren xedapenen testu bateginaren 61. artikulua (maiatzaren 24ko 1/2011 Legegintzako

Dekretuaren bidez onartu zen testu hori) eta, halaber, bosgarren xedapen gehigarria erantsi egiten zaio testu bateginari.

- Aldatu egiten da 14/1994 Legea, ekainaren 30ekoa, EAEko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzkoa: laugarren xedapen gehigarria eransten zaio, ekonomia-kontrola eta kontabilitatearen arloan erregulazio zehatza ezartzeko sektore publikoko kide ez diren baina bere erakunderen bati atxikitako partzuergoetarako. Jakinarazten da Ogasun eta Finantza Sailaren eskariz egin dela aldaketa hori, hala adierazi baitzuen alegazio-idazkian.

- Lehendik EAEko sektore publikoko kide ziren fundazioek urtebeteko epea dute lege-proiektu honetara egokitzeke.

Haatik, arauan ez da berariazko aldaketarik egin diru-laguntzen arloan (proiektuaren 60.3 eta 70.6 artikulua), bereziki EAEko diru-laguntzak arautzeko lege-aurreproiektua izapidetzen ari direla kontuan izanda. Ogasun-arloan ere ez da aldaketarik egin, jarraian aipatuko dugun bezala.

Aurreko guztia esanda, aipatu beharra dago izapidetutako proiektuak hitzez hitz biltzen dituela Euskal Administrazio Publikoaren lege-proiektuan aurreikusitako manamendu ugari. Hori dela eta, ekimen hori izapidetzean egindako oharretara jotzen dugu. Ohar horiek 2014ko ekainaren 26koak dira eta, gure iritziz, errepikatu egiten dira; beraz, jaso ez diren heinean, kontuan har daitezten iradokitzen dugu.

Gainera, Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren iritziz, komenigarria da ekonomia-eta araudi-kontrolari begira hainbat ohararazpen egitea; zehaztu egin behar da ohar horiek Ogasun eta Finantza Sailak egin zituela dagoeneko, proiektuaren alegazioak izapidetzean.

a) Proiektuak Euskal Sektore Publikoa arrazionalizatzeko eta neurriz egokitzeke Erakunde arteko Batzordea eratzea aurreikusten du. Batzorde horrek, besteak beste erakunde-antolamendua du oinarri, batez ere parte-hartzaileen (hala nola, Foru Aldundien) izaera juridikoari erreparatuz gero. Horregatik guztiagatik, Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren iritziz, ezinbestekoa da ongi zehaztea zein den Batzordeari esleitzen zaizkion osaera eta funtzioen oinarri juridikoa; Bulegoak beharrezkotzat jotzen du, halaber, inplikaturako erakundeak batzorde horren alde agertzea.

b) Berriz ere proposatzen da 8. artikulua 3. puntua ezaba dadin; ondarearekin eta ogasunarekin lotutako agindua den heinean, eta ez erakundeekin eta antolamenduarekin. Sailaren memoria osagarrian jasotako arrazoibideak ez dira, beraz, nahikotzat jotzen, txosten honek aurreko izapideetan adierazitako oharak bildu ez ditzan.

c) 48. artikulua euskal sektore publikoko kide diren partzuergoei egiten die erreferentzia; ez du, beraz, zentzu handirik artikulua horren 4.

puntuak atxikitako partzuergoen araubidea ezartzea, beren erregimen juridikoa 43.3 artikulua ezartzen baitu dagoeneko. Hori dela eta, "...atxikita dagoen herri administrazioa" esaldia ezabatzea, gainerakoa bere horretan utziz.

d) Bestalde, 57. artikulua, enpresa-kontzentrazio sozietateei buruzkoa, testu berrian sartzen duen aurreikuspena lehengo aurreproiektutik ezabatu zen baten antzekoa da; Ogasun eta Finantza Sailaren arabera, lehengo aurreikuspen hori enpresa-holdinga existitzearen aldekoa zen, beste eskakizun eta baldintzekin. Gure iritziz, igorritako espedienteak ez ditu behar adina arrazoibide juridiko biltzen, hasierako aurreikuspen hori berreskuratzeko. Horrez gain, aurreikuspen horren edukia guztiz bat dator ondare-araubidearekin eta ez, ordea, erakunde-izaerako arau batekin.

e) Azkenik, berriz ere proposatzen dugu aurreproiektuaren 1. ataleko d) eta f) hizkiak ezaba daitezen; Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoko Erakundearen Erregistroari buruzkoa da atal hori eta aipatutako hizkiek erregistroan hauek egon behar dutela xedatzen dute: "*d) erakunde bakoitzaren urteko kontuak*" eta "*f) Aparteko idazkunean jasoko dira EAEko sektore publikoko kide direla zehazten ez duten erakundeetako partaidetzak, bai eta horien oinarritzko aldaketak ere*". Gure iritziz, Erregistro horren ardurapean sektore publikoko kide diren erakundeek egon behar dute; ez, ordea, enpresa-ondareko partaidetzek, horiek ondareaz arduratzen den sailaren mende baitaude.

Gainera, ez da bidezkoa erregistro horretan ekonomiarekin zerikusirik duen gairik agertzea, batez ere informazio hori biltzen duten beste erregistro batzuk daudelako eta ekainaren 30eko 14/1994 Legeak, EAEko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzkoak, Ogasun eta Finantza Sailari eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoari aitortzen dielako sektore publikoko erakundearen urteko kontuak igortzeko eskumena (9, 12 eta 14. artikulua eta beste).

Honezkero, komenigarria da txosten honi eranstea Kontrol Ekonomikoko Bulegoak 2014ko ekainaren 26ko txostenean horri buruz zioena:

"Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoko Erakundearen Erregistroa. Erregistro berri horrek gardentasuna areagotu bai baina, horrez gain, ez dakar beste onurarik, egonkortasun-araudiak Autonomia Erkidegoen barneko ekonomia-kontrolerako organoei esleitutako funtzio berberak ditu eta. Administrazio honi dagokionez, funtzio horiek Kontzerturako Batzorde Mistoaren akordioan adostu ziren urtarilaren 16an, indarrean den Kontzertu Ekonomikoaren 48. eta 62. artikulua betez.

Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren webgunean ikusgai daude bere sektore publikoa osatzen duten edo haren menpe dauden erakunde guztiei buruzko informazio juridikoa eta ekonomiko garrantzitsua. Aipatutako Akordioaren D.7 atalean zehazten da erakunde publiko eta partaidetutakoen inbentarioak informazio hau jaso behar duela gutxienez:

"a) Izena eta INE eta IFZ identifikazio-kodeak, altako eta bajako datak, eta aldaketa-datak halakorik egotekotan.

b) Helbidea, telefonoa, faxa eta helbide elektronikoa.

c) Erakundearen, estutuen edo sozietatearen helburua.

d) Dagokien eratze-arau edo -akordioak esleitzen dizkien eskumen eta jarduerak.

e) Bere jarduerak finantzatzeko erabiltzen dituzten baliabideak.

f) Aurrekontu- eta kontabilitate-araubidea.

g) Elkarte izaerako erakundeak izatekotan, horien osaeraren eta erakunde bakoitzaren partaidetza-ehunekoaren berri emango da aurreko guztiez gain.

h) Inbentarioa osatzen duten erakundearen ekonomia- eta finantza-azterketa egiteko interesgarriak izan litezkeen beste datu juridiko, ekonomiko edo antolamendukoak."

Horregatik guztiagatik, artikulua idatzera berraztertu beharra dago, kontuan har ditzan esparru horretan Ogasun eta Finantza Sailak esleituta dituen funtzioak. Artikulu horren helburua gardentasuna lortzea bada, proiektuaren barruan dagokion Tituluan eman behar da erregistro horren eraketaren berri eta Ogasunak berezkoak dituen arloei erreferentzia egiten dieten atalak ezabatu beharko dira, hala nola akziodunen partaidetza kapitalari dagokionean, eta beste."

IV. EKONOMIA ETA AURREKONTUA

Atal honetan proiektuak alderdi hauetan izan duen eragin zuzena aztertuko da: aurreikusitako diru-sarrerak eta gastuetan, beste alderdi ekonomiko batzuetan, eta ekonomian eta antolamenduan eragina duten arauetan. *Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioaren barneko ekonomia-kontrola eta kontabilitatea garatzen dituen urriaren 31ko 464/1995 Dekretuko 42. artikulua* arabera, ekonomia-kontrolari buruzko txostena emateko ezinbestekoa da memoria bidaltzea, honako datu hauek kontuan hartuta: arautegia indarrean jartzeak ekarriko dituen aurrekontu-gastuak eta sarrerak; gastu horiek finantzatzeko moduak; xedapenaren aurrekariak eta justifikazioa; xedapena txertatuko den aurrekontuko programa ekonomikoa, helburuak, ekintzak eta adierazleak adierazita; arautegia aplikatzeak ekonomian eta gizartean izango duen eraginaren ebaluazioa; eta proposatutako arautegiaren ildo nagusiak eta oinarri juridikoak ezagutzeko behar diren datu, txosten eta azterlan guztiak. Laburbilduz, arautegia onartu aurreko hausnarketa-prozesuan ondorio ekonomiko guztiak ebaluatu behar dira, gastu publikoan ekonomia- eta eraginkortasun-printzipioak betetzen direla bermatzeko. Arautegiak norbanakoengan eta ekonomian oro har izango duen eragin ekonomikoa ere aztertu behar da, arrazoizkoa eta bideragarria dela bermatzeko.

Ondorioz, memoria ekonomikoa bildu beharreko edukiak alderatu egin behar dira Kontrol Ekonomikoko Bulegoari igorritako espedientean ageri den

dokumentazioarekin. Beraz, memoria ekonomikoak hainbat alderdi aipatzen ditu eta, informatzeko helburu bakarrekin, honela sailkatuko ditugu.

1. Ekimena sustatzen duen sailak kostuak murriztea eragingo duten zenbait neurri jaso ditu:

- EAEko sektore publikoa neurritz egokitzeko eta arrazionalizatzeko estrategia onartzeak EAEko sektore publikoko erakundeen funtzionamendu gastuetan 235.297.715 euro aurrezteka ekarri du memoriaren arabera. Datu hori ez du, ordea, egiaztatu Ogasun eta Finantza Saileko Aurrekontu Zuzendaritzak.

Nolanahi ere, memoria ekonomikoak ez du argitzen diru hori dagoeneko aurreztu egin den edo legea indarrean jartzearen ondorioz aurreztuko den. Zentzu horretan, gogoratu behar da proiektuak ez daukala mandaturik, eta ez dela bera betetzeko inolako eperik ezarri, lehendik dauden erakundeak aurreproiektuaren tipologia eta printzipioetara egokitzeko (sektore publikoaren funtzioei dagokienean salbu).

Gainera, ez zaie erreferentziarik egin organo kudeatzaileak euskal sektore publikoaren egoerari buruz egindako prospekzioei, ez dira baloratu egindako edo proiektuan aurreikusitako berregituraketak ezta horien ondorio ekonomikoak ere, eta ez da beste aukera batzuen artean erregulazio zehatz baten alde egin izanaren arrazoirik eman. Hori dela eta, kontuan izanda memoria abian den Administrazioaren arrazionalizazio eta neurritz egokitzearen isla ekonomikoa dela, komenigarria litzateke ekimena sustatzen duen sailak bereiztea burututako ekintzen estimazio ekonomikoaren oinarria eta lege-proiektuaren birtualtasuna murriztapen horretan, zenbateko zehatz bat jaso dela aintzat hartuta.

- Aurrezpen-neurritzat hartzen da arauaren aurreikuspen hau: antolamendurako egitura autonomoak sortzea bakar-bakarrik lehendik dauden egiturek ezin badituzte funtzio publikoak eraginkortasunez bete. Horrez gain, jardunean bikoiztasunak, errepikapenak eta inefizientziak ezabatzen badira eta urtero derrigorrezko eraginkortasun-ebaluazioak egin eta berregituraketa-neurriak hartzeko beharra ezartzen bada, etorkizunean kostuak murriztea ekar dezake, aurrezpen horren zenbatekoa zehaztuta ez badago ere.

- V. tituluan, Euskadiko Herri Administrazioaren funtzionamenduari buruzkoan, jaso diren xedapenen helburua administrazioaren politikak, programak, zerbitzuak eta gainerako alderdiak hobetzea da. Izan ere, kudeaketagatiko erantzukizunaren printzipioa txertatzen da, eta horrek inefizientziak murriztu eta helburuen lorpen-ratioak handituko ditu. Horrenbestez, memoria ekonomikoaren arabera, egungo egitura-kostuak finantzatzeko aurrekontu-baliabideen aprobetxamendua eta efizientzia areagotuko da. Ez da aurreikuspenik egin horrek eragin lezakeen gastuen murrizketaren zenbatekoari dagokionez.

2. Oro har, gaur egun dauden giza baliabideekin eta aurrekontu-baliabideekin era daitezke Administrazioaren funtzionamendua hobetzeko erabiliko diren tresnak; hala ere, aurrekontu-sail espezifikoak ezarri beharko dira hasierako fasean, memoriak adierazten duen bezala:

- Kudeaketa publiko aurreratuko sistemak ezartzeko ereduak garatu behar dira, langileei prestakuntza eman behar zaie, ebaluazioak egin behar dira, eta beste hainbat jarduera egin beharko dira. Horiek guztiak egiteko, dotazio egokiak esleitu beharko zaizkie administrazioaren berrikuntzaz eta hobekuntzaz arduratzen diren unitateei. Gaur egun, Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzak badu "Aurrerabide. Kudeaketa Hobetzea" kontzepturako aurrekontu-sail bat esleitura. Esleipenaren zenbatekoa 51.600 eurokoa da eta 2016 eta 2017 ekitaldietarako konpromiso-kredituak 50.000 eta 80.000 eurokoak dira, hurrenez hurren.

Administrazio-sinplifikaziorako eta prozedurak digitalizatzeko neurrietarako, gaur egun, inbertsio handiak egin behar dira baliabide propioetan eta kanpo-baliabideetan, baina aurreikusten da hemendik aurrera inbertsio hori txikituz joango dela, azpiegitura komunak oso aurreratuta daudelako. Are gehiago, oso aurrezki handiak hautemango dira izapidetze elektronikoa orokortzen denean. Aurrezteak lortuko dute bai administrazioak (ez du papera erabiltzeko beharrik izango, lanak automatizatu egingo dira, laburtu egingo dira kudeaketa-denborak, elkarreragingarritasuna baliatuko da...) bai herritar eta enpresek, joan-etorri gutxiago egin behar izango dituztelako, agiri gutxiago beharko dituztelako, eta denbora gutxiago eman beharko dutelako herritarren arretarako eta erregistroetako leihatiletan.

Administrazio elektronikoa bultzatzeko, antolamenduaren, teknologiaren eta prozeduren alorretako lan-ildoak kudeatzeko gai diren giza baliabideak erabili behar izan dira proiektuan, hau da, proiektu-arduradunak sartu behar izan dira proiektuan. Haatik, Eusko Jaurlaritzako hainbeste eta hainbeste prozedura digitalizatzen ari direnez, hauek beharrezkoak dira:

- a) Zerbitzu Elektronikoen unitate bat sortzea, elektronikoki kudeatzen diren gobernuaren zerbitzu guztiak (erabiltzaileen altak, tresnen konfigurazioa, etab.) ongi dabilzala ziurtatzeko eta lan horren guztiaren euskarria izateko. Unitate horretarako, 5 lanpostu-hornidura kalkulatu dira, lanbide-profil teknikoa dutenak. Neurri batean, Herri Administrazio eta Justizia Saileko giza baliabideen barneko berrantolaketa eginez bultza daiteke unitate horren sorrera. Era berean, premiazkoa da erabiltzaileentzako arreta-zentroak berrantolatzea, zerbitzu elektronikoen EAZ bakarra izan dadin herritarrentzat (kanpoko erabiltzaileak) eta izapidegileentzat (barneko erabiltzaileak). Horrez gain, administrazio elektronikoko proiektu honen arduradunak, pixkanaka, orain arte osorik garatu ez diren egitekoak betetzeari ekingo diote, lotura estua duten aldetik

Euskal Sektore Publikoaren Antolamendu eta Funtzionamenduaren Legean agintzen direnekin: kudeaketa publiko aurreratua edo herritarrekin interakzioan jarduteko kanal anitzeko sistema. Hemen adierazi berri diren jarduerak egiteko, esleituta dago, dagoeneko, aurrekontu-partida bat, 3.708.579 eurokoa, "Administrazio elektronikoa" epigrafean, Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzan.

- b) Zerbitzu elektronikoaren EAZak berrantolatzeak kostua izango litzateke, orain sailek urtero finantzatzen duten zenbatekoa, 585.000 euro, eta beste 315.000 euro gehiago, zerbitzu elektronikoaren erabilera handitzearen ondorioz (gaur egun %65koa da eta %100koa izango da). Zerbitzu elektronikoaren erabiltzaileen arretarako zerbitzu (EAZ) bateratua sortzeko 819.000 euro beharko dira guztira, taula honen arabera:

	2015	2016	2017	2018
Sailek jada finantzatzen duten EAZ	585.000	585.000	585.000	585.000
Behar den finantziario gehigarria, guztira		135.000	225.000	315.000
Behar den finantziarioa, guztira	585.000	720.000	810.000	900.000
Zerbitzu elektronikoaren eskuragarritasunaren bilakaera	% 65	% 80	% 90	% 100

- Administrazio Elektronikoaren Aholku Batzordearen sorrerak (74.2 artikulua) oso gastu txikia eragingo du, administrazio publikoaren ordezkariak osatuko baitute, dietak ordaintzeko premiarik gabe.

Herritarrekin interakzioan jarduteko kanal anitzeko sistema eraikitzeak bidean da eta dotazio ekonomikoa beharko du martxan jartzeko. Antolamenduaren aldetik ere neurriak beharko ditu herritarrekin interakzio eraginkorra bermatzeko. Gaur egun, Lehendakariatzako Irekia zerbitzuak, web zerbitzuak eta Herri Administrazio eta Justizia Saileko Zuzenean zerbitzuek ematen dituzte zerbitzu horiek. Egin beharreko jarduerak jada badituzte aurrekontu-partidak esleituta: Irekia zerbitzuak 1.192.658 euroko aurrekontua du, eta herritarrekiko interakzioak (web zerbitzua eta Zuzenean), berriz, 2.457.986 euroko aurrekontua.

3. Gobernu irekiko plataforma, herritarrekiko interakziorako kanal anitzeko sistema gisa, Irekia plataformaren bidez gauzatzen da gaur egun eta aurrekontu-partida bat du esleituta. Dena dela, memoria ekonomikoak adierazten duenez, aurrekontu-dotazio horiek unean-unean handiagoak edo txikiagoak izan daitezke, plataformaren mantentze-lanen eta bilakaeraren arabera.

4. Aurrekontu Zuzendaritzaren esku-hartzeari dagokionez, kontuan harturik Euskadiko Herri Administrazioaren lege-proiektua izapidetzean aintzat hartu ziren ekonomia- eta aurrekontu-parametroak ez direla aldatu, 2014ko ekainaren 20an emandako txosten horrek balio du egun ere. Nolanahi ere, txosten horren

ondorioak gogoratzeko, espedienteari eransten dizkiogu (urte naturalei egindako erreferentziei urtebete gehitu beharko zaie):

“2014ko ekitaldian *Euskadiko Herri Administrazioaren Legea* aplikatzeko EAeko 2014ko Aurrekontu Orokorretan esleitutako finantziazioa erabiliko da. Lege hori indarrean sartu zenetik sortutako kostua finantzatzeko Herri Administrazio eta Justizia Sailaren dotazioetara joko da; horretarako, Sail horrek dagozkion aurrekontu-aldaketak egin beharko ditu. 2015erako aurrekontu-gastuari dagokionez, Herri Administrazio eta Justizia Sailak 2015 ekitaldirako aurrekontuaren aurreproiektuan jaso beharko ditu erakundeari esleitutako dotazio zehatzak eta, beharrezkoa izanez gero, saileko kreditua berresleitu beharko du.

Era berean, hurrengo aurrekontu-ekitaldietako ekintza batzuetarako behar den finantziazio gehigarriari dagokionez, sailak dagozkion berresleipenak egin beharko ditu saileko beste kreditu batzuetatik”.

5. Memoria ekonomikoak erreferentzia orokorra egiten die 1215 “Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko” programaren eta 1121 “Lehendakaritza. Egitura eta laguntza” programaren helburu, ekintza eta adierazleei; hortaz, memorian jasotako informazioa, batez ere adierazleei eta horien garrantziari buruzkoa, legeak berak ezarritako helburuak bete diren ebaluatzeko balia daitekeen parametrotzat har daiteke.

6. Sektore Publikoko Erakundeen Erregistroari dagokionez (aurreko atalean egindako oharrez gain), esan beharra dago memoria ekonomikoak ez duela erregistroa ezartzeak ekar lezakeen kostuen estimaziorik egin, ez kostu materialei (euskarri informatikoak, telematikoak...) ez pertsonalei (nahiz eta lehendik dauden giza baliabideekin erantzun, zer plazari eragingo dien, zenbat denbora eskaini beharko zaien funtzio horiei...jakinarazi beharko da) dagokienez; estimazio hori, nolanahi ere, aurreikusitako arauen arabera egin beharko da.

V. ONDORIOA

Besterik gabe, txosten hau Sail bidaltzailearen esku uzten dugu, bertan jasotzen diren oharrek aintzat hartzeko beharra azpimarratuz, batez ere III. atalekoak.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko uztailaren 31.

Izpta. : Javier Losa Ziganda
**KONTROL EKONOMIKOKO BULEGOAREN
 ZUZENDARIA**